

IDSZ-TCKNIKaK IKASTEKO

' • ' IKASTARO INTEEEESGMRIA . ,;

la egunero taberna berriren bat irekitzen den Euskal Herri honetan egoki datorke *Pierre Topet Etchahun* izeneko musika zintaren sarrerako aipamena:

«... Segur, Ziiberua ez da handi, baina popiilli ttikienak ba dii bere balioa. Leheneko denboetan populii greka ez zen handi. Grezian, lau edo bost mintzaje pii mintzatiik zien. Baina uane mintzaje hoiien lenguiariak nola ez dii argitzen mundu zabala? Dena den gu ziibeotarrak gen bezala nahi gia bizi. Gure aiten aitek bizi daiken aberastasuneki. Nur daki, gii gien hazi ttpiak nolako zihafia emanen dien eta nolako frutiieki».

Egunkari bidez zabaldu genuen deiari erantzunik, 58 ikaslek eman zuten Idaz-Tekniken ikastarorako izena. Urtarrilaren 16an, larunbatez hasi eta martxoaren 27rako tarte honetan ez dute denek iraun. Klaseko saioez gainer a, etxean saiatu direnak 18 izan dira. Hauekin lana eramatea benetan atsegina eta probetxugarria izan da.

Zergatik ikastaro hau?

Aurtengo urterarte D mailako titulurako azterketak zuzentzen ibili izan garenean, azterketetako *idazlanak* zuzentzean zerbaiten hutsunea nabarmendu izan dugu. Gure ikasleok nekez, baldar eta apal idazten zuten. Ba ziren bestelako perla bitxiak ere. Lehenengo nahiz

bigarren taldekoei nola lagundu ikusteko ez zen Lemoizko argirik behar. Haiei U.B.I.(C.O.U.) mailari dagozkion erako ariketak betetzea komeni zitzaien. Zuzen nahiz graziaz idazten zutenek bobetuz, treba zitezen lagundu behar genien. Horrez gainera ere ba dago arrazoirik: Edozein herritako jaietan, nor, zenbat dira zuzen idazteko gai? Edo, aldizkariren batetara artikulua bihaltzera nor ausartzen da besteak zuzendu bank? Euskaldunok eskribatuari bankuko letrei baino bildur handiago diogu.

Zer egitarau jarraitu izan dugu?

Egitarau osoa puntuz puntu zehaztu barik irakurleak horren gima bereganatzeko neurrian emango dut:

A) NARRAZIOAN:

- 1) *Narratz&ile mot ok* begiratu ditugu:
 - Orojakilea (Txomin Agirrerren nobelatakoa).
 - Historiaren barruan edo kanpoan dagoena.
 - Perspektibismoa, ikuspegi aldatzea.
 - Irakurlearekiko harremanak.
- 2) *Narrazioaren denbora*: Historiaren denbora.
- 3) *Elkarrizketa*, barne bakarriketa, eta beste.

B) DESKRIPZIOAN:

- 1) *Testu deskriptiboaren elementuak*.
- 2) *Ikuslea*: lekua:
 - kuadroaren kanpoan
 - kuadroaren barruan.

Pertsona gramatikala: 1, 2, 3. pertsonak.

Geldi dagoena ala mogimendukoa. Etab.
- 3) *Hizkuntza*: metaforak...

Ezer gutxi nekatuz ikus daiteke ikastaroaren maila. Guk berez behe maila-zuzen idazten ikastekoa: artikulua, eskutitzak— pres-tatu genuen, baina ikaslearen nahiagatik eta nolabaiteko literatur mailara begira dagoena eman dugu.

Nolako metodologiaz bsiliatu gara?

Lehenik erdarazko liburu ugaritan dagoen teoria azaldu izan dugu. Pertsona gramatikalak, lgoa, 2garrena eta 3.ari buruz ari ginela adibidez, 2garrenaz auxe esaten genuen:

Guztiz teknika berria da. Gaurko nobeletan erabilia. Bigarrena erabiltzeak, protagonista bikoiztu, desdoblatu egiten du, bere buruaz hitz eginez. Zergatik horrelako elkarrizketa nobeletan? Ba da hor filosofia jakina: Bere buruaz ez dago osoan jabeturik, bere burua ez du erabat ulertzen eta parte ezaguna ezezagunaz mintzatzen da. Teknika hau aurkitzeko idazlanak, Martin de Ugaldere *Itsasoak Ur Bazter Luzea du*, erdarazko *Tiempo de silencio*. Horrela irakurleari dei egiten zaio, apelazioa egiten zaio, irakurlea protagonisten artean sartuz.

Bigarren unean, euskal idazleen lanetik zati bi edo hiru, adieragarrientzat jotzen direnak hartuz, irakurri eta konprobatu egin izan dugu klasean azaldutako teknika.

Hirugarrenez, bakoitzak, bere kabuz eta teknika horiek kpntutan harturik, idazlana etxean eginez, klasera ekarri behar izan du, talde lanean kritikatu ahal izateko.

Etxean osotu beharreko lanetan, deskribapena lantzen ari ginen ekitaldietarako baten ibardunaldi hau jarri zigun Marisa Diez irakasleak:

«—Molda ezazue deskribapena elementuok haintzat hartuz:

MENDIAK: Ernio, Aralar	<i>Basoak</i> : Sollube, Belate
Gorbea, Arno	<i>Belardiak</i>
Anboto, Oiz	<i>Hiriak</i>
Izarraitz	<i>Bideak</i>

—Deskribatze momentuan trena pasatzen dela jakin.

—Hizkuntza literarioa egiten. saiatuz, hortarako kalifikatiboz, kanparaketaz. eta baliatuz.

—Ondoren Txomin Agirreren garoan begiratu ea elementu horiekin berak zer deskribapen mota asmatu duen».

Ondorioz, hamaseiren bat lanetatik bi edo hiru oso ederrak jendearteratzen izan dira. Gogoz eta gozo egindakoa giiztien lana zen.

Zakntzarik gabe elkarrizketan, elkar kritikatzan aurreratu dugu gehien. Aide horretatik ikastaldi aberatsak gertatu zaizkigu.

Nahi genuen bibliografia eskuratzea biziki kostatu zaigu. Azke-nean material ederra lortu dugu. Artikulua ez astuntzeagatik ez noa hemen jartzera.

AdibSdea:

«Erreka . bazterrean etzanik nengoen. Ene begiak urruti zebiltzan. Halako baten, dizdiz zidartsua zerion gauzatzua egin nuen so. Gaueko ihintzaz eroritako izarra zirudien. Bitxi politagorik! Bapatean, bertaratur nindoala, salto eta salto hasi zen. Aurrera,. uraren kontra zihuan. Ni baren parean urak gora. Urgeldi une batetara heldu zenean, inguruka aritu ondoren, geldu zen geratu. Bizkarreko motek nabarmenki salatzen zuten. Bai amuarrair polita! Hain leku baretsuan, ordea, abaiak putzu zirudien. Harri koskorra eskuratuz, uretara jaurtiki nuen eta orduan barre egin zuen putzuak, barre goxoa, poliki-poliki baztarretako basartean galduz. Ibai erdian, amuarrair ez zen bakarreko igerian ageri. Emaztea eta bost kume ere berarekin ziren urak gora. Zenbait hurrats aurrerago, uholdeak gogor zetozen beheak-behera. Telebista ikusgarria zekarren ur indartsuak. Beraren atzetik arrain aldra izugarria. Alboz-albozka egiten zuten igeri, behin baino gehiagotan ur lerdenean murgilduz. Amuarrainen sendia bazterreratu egin zen arrain multzoa igaro zedin arte. Arrankarixuen begiak suz piztu ziren pantailako Tom Sawyer ezagutzean. Senar-emazteak, haiek pasa bezain laster, parabolan saltatuz, aurrera eta gora ekin zuten, ordu luzez. Eguna ibairatzean, ez zen kumerik inguruan. Bakarrik aurkitu zen bikote gaixoa. Hotza sentitu zuten, heriotza gogoko. Elkar besarkatuz, bata bestea laztanduz, ikuttuz, milaka arraultzez ase zuten ibai golkoa».

Behar bada, Idaz-Teknikai buruzko saioetan idazten baino irakurtzen ikasi dugu. Eta ez da gutxi. «*Emkarazko literatura gutxi saltzen da* diote argitaletxeek. Nola ez? Gerenoren nobelaxkak, oster, 5.000 ale inguru zabaltzen dira. Horren arrazoia? Irakurlegorik ugariena, agian, liburu horiek ulertzeko mailan dabilelako.

Euskarazko lituluaz jabeturiko zenbatek ere ote digu esan *100 metro Saizarbitoriarena ez dut ulertzen*. Gauza normala. Literatura atseginez irakurriko bada, ikasi ere egin behar da. Gu ere munduko

herrien artean biziko bagara, prosa landua ere behar dugu. Nobela ederrak ez ulertzeagatik ez ditugu Oesteko hutsak idatziko, geuz, ikasiz, igo behar dugu.

Hemen aipatzen dudan irakurtzen ikasterako saioak han, hor, hemen egin behar dira, *Irakur Klub*, *Irakur Blkarte* nahiz antzerakoak eraikiz. Non? Herriko liburutegiaren inguruan. Nola? Taldean irakurtzen gabiltzan liburua komentatzeko astero elkartuz. Zertarako? Urtero hiru-lau euskal literaturako obra ondo irakurtzeko.

Idazteari zuzen lotuz, klase saioei azkena emateko ipuintzen lana idatzi dugula esan behar dut. Orain berriz elkartuko gara, denok denon ipuinak irakurri ondoren kritiken lanaketa egiteko.

Ikastaldinoan zehar behar hainbat denbora eduki ez dugunez honenbesterik honenbestera batzea erabaki dugu nolabaiteko taldea eratuan funtzionatzeko. Seguru asko gure aktibitatea batetik taldean irakurri eta komentatzera eta bestetik ipuinak eta idaztera zuzenduko da. Praktikak esango du noraino heltzen garen.

Iaz eta aurreko ikastarootan ahaleginduriko 25 en bat neska-mutil, gizon-andre abiatu gara. Zailena taldeari eustea dateke. Laguntasuna emateko prest dagoen idazlaririk ez zaigu falta. Gure tertulietara etorriko litzatekeen kiderik ere ez. Bertsolaritza Eskolak ba doaz. Gu, zergatik ez?

Juan Luis Goikoetxea